

NIK, JUAN FRANCISCO EIGUREN KORTAZARREK, BAKIOKO UDALEKO IDAZKARIA NAIZEN ALDETIK, HONAKO HAU

EGIAZTATZEN DUT:

Bakioko Udalak, 2017ko martxoaren 30ean egindako ohiko osoko bilkuran, gairerrendako 5. puntuari dagokionez, aktatik jasotako honako erabaki hau hartu zuela:

5.- BAKIOKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Udalak, Plan Estrategiko honen indarraldiaren hiru urtetan, diru-laguntzak ezarriko ditu arlo hauetan:

1. **Garapenerako laguntza:** herrien arteko elkartasuna babesteko helburua daben egitasmoak.

2. **Euskal Herriaren kohesioa helburu duten ekintzak aurrera daramatzaten elkarteak diruz laguntzea;** euskal selekzioaren aldeko ekimenak, udalbiltza.bezalakoak.

3. **Gizarte-ekintzarako laguntza:** bizilagunen elkarbizitza eta bizimodua hobetu nahi da, adibidez aurten .

4. **Kultur, kirol eta gizarte arloa:** arlo honen helburua gazteriaren, adinekoen, kulturaren, musikaren, kirolaren, ariketa fisikoaren eta gizartearen intereseko gaien sustapena izango da.

Bi izango dira arlo honetan emango diren laguntza-motak:

- Urteko laguntzak: Herriko elkarteak laguntzeko.
- Diru-laguntza puntualak: Unean-unean herrian sortzen diren ekitaldiak laguntzeko.

5. **Euskara sustatzeko arloa:** arlo honen lehentasunezko helburuak, Bakion zein udalerritik kanpo jarduerak egiten dituzten beste erakunde batzuetan euskararen sustapenari lotutako jarduerak bultzatzea izango da. Bi izango dira arlo honetan emango diren laguntzak:

- Urteko laguntzak: euskara ikasteagatik bakiotarrei laguntzeko.
- Diru-laguntza puntualak: unean-unean Bakion zein udalerritik kanpo euskararen erabilera sustatzeko sortzen diren jarduerak laguntzeko.

Horren ostean, eta gaia Informazio Batzordean eztabaidatu denez gero, zinegotziek botoa eman dute. Beraz, udalbatzak, osoko bilkurara bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabaki hau hartu du: **2017, 2018 eta 2019. urteetarako Bakioko diru-laguntzen Plan estrategikoa onartzea, horren mamia hauxe izanik:**

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua oinarritzkoa da. Beraz, diru-laguntzak eman nahi dituzten udal guztiek Diru-laguntzen Plan Estrategikoa ontzat eman behar dute

Lege horren azken xedapenetatik hirugarrenean xedatuta dagoena betetzeko, Gobernuak uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua argitaratu zuen, Diru-laguntzen gaineko lege orokorra garatzeko, eta Errege Dekretu hori indarrean jarri eta sei hilabeteko epean (2006ko urriaren 25ean), diru-laguntzen plan estrategikoak eta indarrean dauden programa sektorialak bertan ezarrita dagoenari egokituko zaizkio.

Diru-laguntzen gaineko azaroaren 17ko 38/2003 Legea, beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetu eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea eraentzen duten printzipioetako bat gardentasunarena da. Printzipio horrek, Legean egituratzen diren beste hainbat tresnarekin batera, ondorio zuzenak ditu diru-laguntzen gastu publikoaren kudeaketako eraginkortasun eta eragingarritasun mailak handitzeari dagokionez.

Ildo horretatik, merkatuari eragin diezazkioketen distortsio eta interferentziak saihesteko aukera emango du diru-laguntzen gaineko informazio handiagoa izateak, baita administrazio publikoen jardueren konplexutasuna argitu eta horiei koherentzia ematekoa ere, gainjartze oro galarazten dela.

Eraginkortasuna hobetzeko bide horretan, diru-laguntzen plan estrategikoa [politika publikoak antolatzeko tresna, onura publiko edo interes sozialeko jarduera bat bultzatu edo helburu publiko bat sustatzea xede duena] taxutzea aurreikusten du legeriak. Plan estrategiko hori urte anitzekoa izango da, eta diru-laguntzeak sortu baino lehenago taxutu beharko da

Horregatik, Udal honek Diru-laguntzen Plan Estrategikoa ontzat eman du, segidan ageri diren artikuluekin.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Udal honek diru-laguntzak ezarriko ditu 2017., 2018. eta 2019. urteetan, plan honetan aurreikusita dagoenaren arabera.

2. ARTIKULUA

Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezartzeko, zainpeketa egokiak sartu beharko dira urte bakoitzeko Udal Aurrekontuetan, eta bere kontzesioaren oinarri arau-emaileak barnean hartzen dituzten ordenantzak ontzat eman beharko dira

3. ARTIKULUA

Diru-laguntzeak erabakitzeko, nahitaezko baldintza izango da aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzea; horregatik eurak zelan eman arautzeko oinarriak, eta onartu beharreko aurrekontu-esleipenak helburu horietara egokituko dira uneoro

4. ARTIKULUA

Diru-laguntzen plan estrategikoa ontzat emateak ez du esan nahi onuradun izan daitezkeen alde eskubideak sortuko direnik. Eurek ezin izango dute kalte-ordainik eskatu, plana bere baldintzen arabera gauzatzen ez bada

II. KAPITULUA. DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ONURADUNAK ETA ARLOAK

5. ARTIKULUA

Udalak pertsonen edo erakunde pribatuen aldeko diru-laguntzeak emango ditu erabilera publiko edo gizarte intereseko jarduerak sustatzeko edo udal eskumenari dagozkion xede publikoak gauzatzea bultzatzeko

6. ARTIKULUA

Udalak, plan honen indarraldiaren hiru urteetan, diru-laguntzeak ezarriko ditu arlo hauetan:

- 1. Garapenerako laguntza: herrien arteko elkartasuna babestu nahi da.*
- 2. Euskal Herriaren kohesioa helburu duten ekintzak aurrera daramatzaten elkarteak diruz laguntzea; euskal selekzioaren aldeko ekimenak, udalbiltza... bezalakoak.*
- 3. Gizarte-ekintzarako laguntza: bizilagunen elkarbizitza eta bizimodua hobetu nahi da.*
- 4. Kultur, kirol eta gizarte arloa: arlo honen helburua gazteriaren, adinekoen, kulturaren, musikaren, kirolaren, ariketa fisikoaren eta gizartearen intereseko gaien sustapena izango da. Bi izango dira arlo honetan emango diren laguntza-motak:*
 - Urteko laguntzak: Herriko elkarteak laguntzeko.*
 - Diru-laguntza puntualak: Unean-unean herrian sortzen diren ekitaldiak laguntzeko.*
- 5. Euskara sustatzeko arloa: arlo honen lehentasunezko helburuak, Bakion zein udalerritik kanpo jarduerak egiten dituzten beste erakunde batzuetan euskararen sustapenari lotutako jarduerak bultzatzea izango da. Bi izango dira arlo honetan emango diren laguntzak:*
 - Urteko laguntzak: euskara ikasteagatik bakiotarrei laguntzeko.*

- *Diru-laguntza puntualak: unean-unean Bakion zein udalerritik kanpo euskararen erabilera sustatzeko sortzen diren jarduerak laguntzeko.*

III. KAPITULUA. GARAPENERAKO ETA GIZARTE EKINTZARAKO DIRU-LAGUNTZAK

7. ARTIKULUA

Garapenerako eta gizarte ekintzarako, Udalak Planaren indarraldian diru-laguntza ildo hauek ezarriko ditu:

A) Garapenerako laguntzak

a).- Helburuak: Bakioko Udalak irabazteko asmorik gabeko erakunde batzuei diru-laguntza ematen die, egoera behartsuan dauden atzerriko herrietan hainbat proiekturi laguntza emateko

b).- Lortu nahi diren ondorioak: Herrien arteko elkartasuna bultzatu nahi da. Institutuzio, erakunde sozial eta komunitateekiko harreman solidarioen alde diharduten esperientzia lokalak laguntzea du helburu; esate baterako Sahararen aldeko elkartasuna...

c).- Finantziazioa: Finantziazioa fondo propioekin egingo da, aurrekontuen laugarren kapituluaren kontura.

B) Gizarte ekintzarako laguntzak

a).- Helburuak: Bakioko Udalak herritarren elkarbizitza eta bizimodua hobetu nahian, diru-laguntza ematen du bizikidetzaren egoera arintzeko.

b).- Lortu nahi diren ondorioak: bakiotarren bizimodua hobetzea bultzatu nahi da. Udalari ordaindu behar zaizkion zerga eta tasek eragindako gailuz laguntzea du helburu; esate baterako OHZ (IBI)...

c).- Finantziazioa: Finantziazioa fondo propioekin egingo da, aurrekontuen laugarren kapituluaren kontura.

IV. KAPITULUA. KULTUR, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK

8. ARTIKULUA

Kultur, kirol eta gizarte arloan, Udalak Planaren indarraldian diru-laguntza ildo hau ezarriko du: jarduera batzuekin eta besteekin zerikusia daukan elkartegintza

babestea, besteak beste musika, gazteria, adinekoak, kultura, nekazaritza, berdintasuna, etab.

a) Helburuak: udalerrian gutxieneko gizarte balio batzuekin (genero berdintasuna, herri partaidetza, etab...) kultur, kirol eta gizarte arloan jarduerak egiten dituzten toki elkarteei (lehendik daudenei zein eratu nahi dutenei) on egitea.

b) Lortu nahi diren ondorioak: Udalerrian kultur, kirol, gizarte eta partaidetza arloko dinamika sortzea, udalerrinari berari "bizia" emateko. Halaber, kirolaren bidez osasuna eta bizimodu aktiboa sustatzea, udalerrian kirol jarduera eta txapelketa gehiago egitea ahalbidetuz.

c) Finantziarioa: Finantziarioa fondo propioekin egingo da, aurrekontuen laugarren kapituluaren kontura.

d) Ekintza Plana: Udalerriko kultur, kirol eta gizarte elkarteei diru-laguntzeak ematea norgehiagoka sistemaren bidez. Era berean, ekintza zehatz eta esanguratsuak zuzenean finantzatu ahalko dira edo Udalak eskura dezakeen materiala eskaini.

V. KAPITULUA. EUSKARA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK ETA EUSKAL HERRIAREN KOHESIOA HELBURU DUTEN EKINTZAK SUSTATZEKO LAGUNTZAK.

9. ARTIKULUA

Euskararen sustapenaren arloan, Udalak Planaren indarraldian diru-laguntza ildo hauek ezarriko ditu:

A) Euskara ikasteko zuzeneko laguntzak

a) Helburuak: Euren eguneroko jardueren ostean, udalerriko jatorrizko hizkuntza ikastea erabakitzen duten pertsonei laguntzea eta babesa ematea.

b) Lortu nahi diren ondorioak: Udalerrian euskaldun-kopurua handitzea.

c) Finantziarioa: Finantziarioa fondo propioekin egingo da, aurrekontuen laugarren kapituluaren kontura.

d) Ekintza Plana: Homologatutako edozein euskaltegitan egindako matrikulazioa zuzenean diruz lagunduko da urtean behin egindako norgehiagokaren bitartez.

B) Euskararekin lotutako jarduerak egiten dituzten erakunde publiko edo pribatuentzako zuzeneko laguntzak

a) Helburuak: Euskararen erabilera sustatzeko jarduerak egiten dituzten erakunde publiko edo pribatuei laguntzea.

b) Lortu nahi diren ondorioak: Euskara hizkuntz moderno moduan sustatzea eremu publiko zein pribatuetan.

c) Finantziazioa: Finantziazioa fondo propioekin egingo da, aurrekontuen laugarren kapituluaren kontura.

d) Ekintza Plana: Zuzeneko diru-laguntza ematea esate baterako honako erakunde hauei: Kontseilua, Ibilaldia, Korrika, UEU, Behatokia...

C) Euskal Herriaren kohesioa helburu duten ekintzak aurrera daramatzaten elkarteak diruz laguntzea

a) Helburuak: Euskal Herriaren kohesioa lantzen duten ekintzak egiten dituzten erakunde publiko edo pribatuak diruz laguntzea.

b) Lortu nahi diren ondorioak: Euskal Herriaren kohesioa laguntzea eta sustatzea.

c) Finantziazioa: Finantziazioa fondo propioekin egingo da, aurrekontuen laugarren kapituluaren kontura.

d) Ekintza Plana: Zuzeneko diru-laguntza ematea esate baterako honako erakunde hauei: Udalbiltza, Euskal selekzioa...

VI. KAPITULUA. PLANAREN KONTROLA ETA EBALUAZIOA

10. ARTIKULUA

Udalak plan honen betetze-mailaren gaineko kontrola egingo du indarraldian dagoen bitartean.

Urtero, Alkatezak Udaltzari txosten bat aurkeztuko dio egin diren ekintzen eta eman diren diru-laguntzen laburpena erakusteko.

2017/03/30eko Udaltzaren erabaki horren aurka administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, testua argitaratu eta bi hilabeteko epean, betiere iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita. Horrela bada, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46 artikulua ezarritakoarekin bat etorri.

Horrela jasota gera dadin eta interesatuari jakinarazteko, nik, idazkariak, alkate andrearen aginduz, hau idatzi dut, betiere Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 206. artikuluan ezarritako oharra eta salbuespena kontuan hartuta. Bakion, 2017ko apirilaren 3an.

O.E.
Alkatea